# BERRIGARA

87. zenbakia | JARDUN ELKARTEA, Bergara | 1.992, abenduak 4

**ALDERDI GUZTIEK** SALATU ZITUZTEN ALKATEARI EGINDAKO ERASOAK

●

**TXOLARTE:** GUTXITUEKIN KOLABORATU NAHI DUTEN MONITORE BILA

●

**KIROLAK**

JOSETXO MUNIATEGIK ZUZENTZEN DUEN ESKUBALOI TALDEAK 12 GOLEZ IRABAZI ZION URNIETAKO LIDERRARI

●



**OILAGORRARAREN 25. URTEURRENA**

THE LOOK
Burberrys
OF LONDON
CAMPER
egizabal
Marka onenen esklusibak ditugu!!
CARTUJANO

# BADATOZTELA!!







BERRIGARA

**Argitaratzailea:** *Jardun* Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97
**Babeslea:** Bergarako Udala
**Laguntzailea:**
Eusko Jaurlaritza
**Erredakzioa**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil
**Publizitatea eta harpidetzak:** Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97
**Erredakzio-kontseilua:** Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien
**Kolaboratzaileak:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, M. Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I. Sorondo.
**Argazki laborategia:**
B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J. Garzia, D. Santos, P. Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.
**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina eta Antonio Arrillaga
**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)
**Banaketa** : Txantxangorri Taldea
**Copyright:**
BERRIGARA
**Tirada:** 3.000 ale
**Lege gordailua:** SS 50/ 91
**ISSN:** 1130-6599
**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

*Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du*

PROTAGONISTAK

# OILAGORRA

Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak bere 25. urteurrena ospatuko du larunbatean, abenduak 5.

1.967.eko abenduaren 8an sortu eta Jabier Alberdi presidente duen elkarte honek (135 bazkide) hainbat ekitaldi iragarri ditu egun berezi horretarako. Arratsaldeko 3retan Plater tiraketa jokatuko da Irubiden (Gorlan) eta 7 t´erdietan hildako bazkideen omenezko meza izango da San Pedro parrokian. Ondoren, gaueko 9etan, eta aurrez izena eman dutenek afaria egingo dute elkartean.



Afalostean, bazkideek 25. urteurrenaren oroigarritzat atera diren giltzarri bana jasoko dute.

Datu bitxi bezala aipatu Pertxa Elkartea 9 urte beranduagoko egun berean sortu zela. Zorionak biei!!

**Ehiza eta Arrantza Elkarteak 25 urte beteko ditu**

ITURRI ONETIK

# IMI gela ixteko zorian

SPRI erakundeak bere ardurapena diren IMI gelak, Bergarakoa tartean, kendu nahi ditu. Informatika beste bide batzutatik heltzen ari da orain enpresetara eta bulego hauek gaur egun ez dute hasierako helburua betetzen. Udalak IMI gelarekin bere kontu jarraitzeko aukera izango luke; Udaleko Kultura gestorearen esanetan, *"nahiko zaila da, teknikoki hornituta egon behar duzulako eta, segituan atzeratuta geratzen zarenez, oso garestia delako"*.

ESAN DUTE

"Kanpoan jende oso onarekin neurtu ditugu indarrak eta beste munduko gauza ez direla konturatu naiz. Zuk baino material hobeagoa dute eta hori igartzen da. Nik kirol honetan jaio ez baizik eta zeure burua landu behar duzula uste duen horietakoa naiz. Gora heltzeko balio izan dizuten laguntza batzuk dituzu, bestela ez dago zer eginik".

**RAMON AMBROI**
Langile eta moto gidaria
EGIN

●

"Egigureni biolentzia erabiltzeagatik prozesatua izan den bakarra bera izan dela gogorarazi nahi nioke. Ez dut uste bera honelako deskalifikazioak egiteko pertsona egokia denik. HBko junteroen *curriculum* judizialak aztertzera gonbidatzen dut".

**JOSE LUIS ELKORO**
HBko Batzarkidea
EGIN

●

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIAURRE
AROZTEGIA
• Sarrerako eta barruko ateak •
• Horma armairuak • Tarimak •
• Egurrezko eta PVCzko leihoak •
• Era guztietako arotz lanak •
Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

ELEKTRO
ARENAZA C.B.
Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.
San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



**SOLDADO UNIVERSAL**
Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00., 19.30 eta 22.15.
Asteazkena: 19.30.



**ALTO O MI MADRE DISPARA**
Larunbata: 17.00, 19.30 eta 22.30.
Astelehena: 17.00, 19.30. eta 22.30.



**MEDITERRANEO**
Asteartea: 17.00, 19.30 eta 22.15.

## Zinea

▼▼ **Jean Claude Van Damme** eta **Dolph Lundgren** indartsuek protagonizatzen dute etorkizunean girotutako *thriller* hau. *Terminator*en antzera, gudari konputerizatu hauek ez dute ez minik hartzen, ez emoziorik azaltzen... Hori bai, beren pistola futuristekin oso abilak dira.

▼▼ *Joe Bomowski* **(Sylvester Stallone)** detektibearen ama **(Estelle Getty)** bisitan dator. Bere semeari etxea pixka bat txukundu ondoren, hiria ere delinkuentez garbitu nahi izango du eta mila arazo sortaraziko ditu. **Roger Spottiswood**ek zuzendutako komedia.

▼▼ Filme italiar honek atzerritar filme onenaren *oskarra* irabazi du aurten, beste sari batzuren artean. II. Gerrate Mundialean soldadu talde bat, gudari paso egin, eta momentu oso dibertigarriak igaroko dituzte irla bateko bizilagunekin.

## Erakusketak

▼ **Manu Muniategik** bere azken kuadroak ikusgai izango ditu Kultur Etxean datorren igandera arte, abenduak 13.



*Manu Muniategi.*

## Farmaziak

▼ **Larunbata 5:** Estella.
▼ **Igandea 6:** Estella.
▼ **Astelehena 7:** Mozos.
▼ **Asteartea 8:** Camacho.
▼ **Asteazkena 9:** Puy.
▼ **Osteguna 10:** Guallar.
▼ **Ostirala 11:** Estella.

## Ogia

▼ **Igandea 6:** Konde.
▼ **Asteartea 8:** Bolintxo.

**ZUBIETA**
**elektragintza**
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

**MAKAILO ETXEA**
Makailau kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15


Ziripot
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

# Ikuskizunak

▼ **Plater tiraketa** larunbatean, hilak 5, 15.00etan Iru-Biden (Gorlan).

▼ **Kirol Argazkien Lehiaketako** lanak ikusgai izango dira Kultur Etxean abenduaren 13ra arte. 3. erakusgelan.

▼ **Banbiro ehiztariak** haurrentzako bideoa larunbatean, hilak 5, Angiozarko Saloian 16.30etan.

# Aukeran

▼▼ **Musika Eskolako** taldeen kontzertua izango da datorren sotiralean, hilak 11, Udazken Kulturalaren programazioaren barne. Bertan, sortu berrii den jazz talde batek eta Orkesta Txikiak, Alberto Laskurainen zuzendaritzapean, beren aurkezpena egingo dute. Ostiralean, 19.30etan Novedadesen.



# Kirolak

▼ **Futbola:**

• *Bergara-Ilintxa* (lehen mailako infantilak). **Larunbatean** 10etan Ipintzan.

• *Bergara-Irundarra* (2. mailako errejionala). **Larunbatean** 15.30etan.

• *Bergara-Miren Bihotza* (1. mailako gazteak). **Asteartean** 16.30etan.

▼ **Eskubaloia:**

• *Bergara-Hondarribia*(kadete mutilak). **Larunbatean** 15.45etan Kiroldegian.

• *Bergara-Don Bosco* (gazte mutilak), larunbatean 17.00etan.

▼ **Saskibaloia:**

• *Bergara-Garbi* (senior gizonak), **larunbatean** 18.30etan.

• *Bergara-Getxo* (senior neskak), **larunbatean** 20.30etan.

• **Igandean**, eguerdiko 12etan gazteen bi taldeek partiduak izango dituzte Kiroldegian.

▼ **Pelota:**

• *Bergara-Soraluze* (alebin, infantil eta kadeteak) igandean 11etan Frontoian.

▼ **Futbitoa:**

• *Futbito Txapelketa* **astebukaeran** Kiroldegian.



*Bergara eta Soraluzeren arteko pelota neurketa igandean goizeko 11etan.*

HARATEGIA
ANTIA
URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

ARRANO

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

EZPELETA etxea
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

## *Euskaltegiko kontua*

Euskaltegiko lagun estimatuak:

Nahi gabe sortarazi dizkizuedan okerrengatik barkamenak eskatu nahi nizkizueke. Pentsatzen dut bai beste azalpenik eman gabe barkamena eskatze hutsa ez dela nahikoa izango. Saiatuko naiz egin nuena zergatik egin nuen labur-labur azaltzen.

Bergarako San Antonioko KUTXAko (lehen Aurrezki Kutxa Munizipala izan zeneko) zuzendari-izandakoa, Raúl Calvo Zulaika jauna prozesu judizial (Kriminal) batean sartuta dago une honetan Bergarako Epaitegian.

Bere gain dauden karguak ondorengo hauek dira besteak beste: dokumentu merkantilak faltsutzea, dirua bidegabekeriaz bereganatzea, firmak faltsutzea, bezeroen kontuak manipulatzea, etab.

Kutxak berak ere auzitegira eraman zuen delitu horiengatik. Bai gu eta bai Bergarako beste hainbat pertsonari iruzur egin ziguten eta gure kontuetan diru-zenbateko haundiak falta izan ziren. Hori dela eta, salaketa partikular gisa aurkeztu behar izan genuen.

KUTXAk ez zigun inoiz horren azalpenik eman nahiz eta hamaika aldiz eskatu genion. Momentu batean, gainera KUTXAk, gauza bertan behera uzten ere saiatu zen, berak gaiarekin zerikusirik izango ez balu bezala.

Dena behar bezala argitu arte Akademia erosteagatik genituen kredituak ordaintzeari uko egin genion eta hori dela eta, KUTXAk Akademiako pisuak enbargatu egin zizkigun. Baina Zabalotegiko sarrera, Loratregia eta Eranskina oraindik gureak dira.

Guk ez dugu ezer pisu horiek Euskaltegitarako erabiltzearen kontra, ez eta gutxiagorik ere eta arrazoi horregatik utzi diegu Zabalotegiko sarrera, Lorategia eta Eranskina erabiltzen, nahiz eta Eranskinean aldaketa haundiak egin dituzten guri inolako baimenik eskatu gabe.

Bestalde, argitu nahi nuke Alkateak, Gallastegi jaunak, bazekiela lokalak euskaltegirako hartu zituztenean, Eranskina eta Lorategia artean gureak zirela.

Hasiera-hasieratik zekien hori zeren eta oposizioak behin baino gehiagotan eskatu bait zizkion kontuak horregatik. Baina, zergatik ez dakigula, Alkateak ez zion horri inongo inportantziarik eman eta ez zigun inoiz obrak egiteko baimenik eskatu eta, ezta eskerrik ere eman Sarrera, Lorategia eta Eranskina erabiltzeagatik.

KUTXAren azkenengo mobida Lorategia eta Eranskina enbargatzen saiatzea da eta horren aurrean geure eskubideak defenditu beharrean aurkitu gara.

Ziur nago azkenean justizia egingo dela eta benetan sentitzen dut Euskaltegiko ikasleongatik, gai honekin inongo zerikusirik izan gabe, arazo honetan murgildurik zaudetelako.

Beste azalpenen bat nahi baduzue, prest nago, zenbait jendek eskatu didan bezala, jendaurreko txarla bat eman eta Bergarako herriari gai katramilatsu honen nondik norakoak azaltzeko.

Nerekin kontaktatu nahi baduzue, 787030 telefonoan izango nauzue.

Begirunez,

*A.J. Stutter*

## Tiiira ba!

Josu Okina



❑ **Komikia**
JARDUN Elkarteak antolatutako komiki lehiaketara lanak aurkezteko epea abenduaren 14ean amaituko da. Adinaren arabera 3 talde bereiziko dira eta kategoria bakoitzeko hiru lan onenak sarituko dira. Sari banaketa Gabonetan egingo da eta informazio gehiago nahi izanez gero, JARDUN Elkarteak Errotalden duen lokalera jo dezakezue.

❑ **Orkesta**
Orkesta Sinfonikoak larunbatean, hilak 5, *La misión* eskeiniko du Aoizeko parrokian, bertako abesbatzaren laguntzaz, arratsaldeko 7 t'erdietan. Astebukaera osorako irtenaldia egingo du Orkestak.

# Alderdi guztiek salatu zituzten alkateari zuzendutako pintadak

Asteleheneko Plenoan Udal Korporazioa osatzen duten alderdi guztiek salatu zituzten azken egunotan alkateari zuzendutako pintadak. Nahiz eta mozioa EA, PSE-PSOE, EE eta EAJk aurkeztu, HB ere bat etorri zen aurrekoekin salaketa egiteko orduan. Jose Luis Elkoro HBko zinegotziak azaldu zuenez, *"ez badugu sinatu hortara gonbidatu ez gaituztelako izan da"*. Victoriano Gallastegi alkateak, berriz, *"alderdi guztien laguntza eta bera eta bere familiarekiko elkartasuna"* eskertu zien guztiei.

Bestalde, IHESaren aldeko lanak eta ikerketekin solidarizatu eta gaisotasun honenganako sentsibilizazioa eskatzen zuen mozioa ere aho batez onartu zen eta HBk ur-baliabideen plangintzari buruz aurkeztutakoa, berriz, atzera bota zuten EAJ, EE eta PSOEk.


*Plenoa Kultur Etxeko 3. erakusgelan egin zen.*

Plenoko punturik polemikoena merkatuaren aurrekontu definitiboaren onarpena izan genuen. Abenduaren 18an amaituko den obra honek 301 milioi pta.ko aurrekontua izango du azkenean. Jose Luis Elkorok esan zuenez, *"uste dugu aurrekontuak ihes egin diola Udalari. Gainera ez dira pentsatutako garajeak egin"*. Victoriano Gallastegik, garaje horiek ez zirela aurreikusten eta proiektua gaizki adjudikatuta zegoelako garestitu dela erantzun zion. Gai honen inguruko bilera informatibo bat egin nahi dutela ere aurreratu zuen.

# Udazken-neguko moda

Joan den igandean toperaino bete zen Mariaren Lagundiko aretoa Institutuko 3. mailako ikasleek ikas-bidaiaren alde antolatutako moda desfilea ikusteko. Udazken-Negurako moda aurkezteko, 60 bat ikaslek desfilatu zuten eta guztiek maila bikaina erakutsi zuten *tablau* gainean, 25 bat bergarar komertzioren nobedadeak *"luzitzerakoan"*. Bide batez, ikasleek diru dexente atera zuten Aste Santuan egin nahi duten ikas-bidaia ordaintzen laguntzeko eta lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiete antolaketan parte hartu zuten guztiei.




Maxim's
☎ 76 20 61

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRAGAILUAK - TB
BIDEOA - BIDEO KAMARAK - SOINUA
GABON GARAIAN OFERTA BIKAINAK PREZIORIK INTERESGARRIENETAN
Mahasterreka, 2 ☎ 76 26 10 BERGARA

### ❑ Ihardunaldiak

UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak euskal hizkuntzalaritzari buruzko ihardunaldiak antolatu ditu urtarrilaren 9tik apirilaren 3ra bitartean. Ihardunaldi hauek larunbatero izango dira eta besteak beste, Miren Azkarate, Eusebio Osa, Patxi Goenaga eta Txillardegik hartuko dute parte. Matrikulak 15.000 pta. balio izango du eta izena emateko epea abenduaren 19an amaituko da.

### ❑ Sari banaketa

Datorren larunbatean, hilak 12, Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Polek antolatutako II. Kirol Argazki Lehiaketaren sari banaketa egingo da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Erakusketa abenduaren 13an amaituko da Kultur Etxean bertan.



## Txaparen programazioa

Txapa Irratia (97.0 FM) astean zehar 35 ordu inguruko programazioa osatzera heldu da. Musika, tertuliak edota elkarrizketak ardatz dituzten saioak dira nagusi eta asanbladako ordezkari batek esaten duen moduan, *"gaur egun nahiko estabilizatuta dagoela esango nuke. Programazio finko bat osatzea lortu da eta audientzia aldetik ere aurrerapausu bat eman dela nabari dugu azkenaldian"*.

Esan bezala, astean 6 eguneko programazioa jarraitu daiteke Txapan: asteartean (arratsaldeko 7etatik gauerdira arte), asteazkenean (8etatik gaueko 12etara), ostegunez 7etan hasi eta 12etan amaitzen da, ostiralez 7etatik 11etara, larunbata dugu egun fuertea 8 orduko programnazioaz (3retatik 5etara eta 6etatik 12etara) eta azkenik, igandean, 6 ordu dira: 3retatik 7etara eta 8etatik 10etara. Aipatu goizean egiten den saio bakarra Aranzadi Ikastolako ikasle talde batek egiten duela, ostiralero, goizeko 11etatik 12etara. Bestalde, irratira deirik egin nahi izanez gero 76 05 41 duzue telefono zenbakia.

### ❑ Oilagorra

Ehiza eta Arrantza Elkarteak dei egiten die Bergarako ibaiak errepoblatu, arrantza txapelketak antolatu, ibaia garbien aurkako erasoen salaketa eta beste ekintza askotan parte hartu nahi dutenei datorren larunbatean, abenduak 12, arratsaldeko 5etan Oilagorra Elkartean egingo den batzarrean parte hartzeko.

### ❑ Argazkilariak

Pol-Pol Argazki Taldeko kideek hainbat sari lortu dituzte: Benito Cantero 1.goa izan da Lesakako Argazki Lehiaketan eta 2. Alsasuako Argazki Rallyan, Agustin Gurrutxaga 2. geratu da Zaldibarkoan eta, azkenik, Jose Luis Feo eta Agustin Gurrutxagak lehen eta bigarren sariak eskuratu dituzte Ermuako Argazki Rallyan.

Tximak
Ileapaindegia
Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

PRiMi
• Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
• Etxerainoko zerbitzua
Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA


ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA
*Liburuak eta diskoak*
Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



# Monitore bila Txolarte

Gutxitu sikikoen alde lan egiten duen Txolarte astialdi klubak musutruke lan egiteko prest diren monitoreak lortu nahi ditu. Gutxitu sikikoarentzako gizarteratze normala helburu duen talde honek 9 talde ditu Gipuzkoan. Guztira 300 bazkide eta 90 monitore dauzka momentuan. Asteroko bileretan ekitaldiak proposatu eta antolatzen dira: txarlak, debateak, jaiak, eskursioak, zinea. antzerkia edota astebukaerarako irteerak.

Kolektibo honenganako interesa azaltzen duen jendea bilatu nahi du Txolartek. Gaur egun Bergarako taldeak 6 monitore ditu eta monitore gehiago hartzeko kanpaina bati ekin dio probintzia osoan zehar; 18 urte baino gehiago izan eta zure astialdiko zati bat beraiekin igarotzeko prest bazaude, larunbatero arratsaldeko 4retatik 8etara biltzen da talde hau Igeri Elkarteko lokalean (igerilekuetan). Beraiekin kontaktoan jarri edota argibide gehiago nahi izanez gero, 76 39 55 (Ana) edota 42 39 42 (Donostiako zentrala) telefono zenbakietara ere deitu dezakezue.

# Txinpartak

✓ **Piloto bergararrak** omenduko dituzte *Scratch* taldeak eta bergarako Udalak datorren igandean, abenduak 13, 14.30etan Osintxuko Txuringo Jatetxean egingo den bazkariarekin. Txartelak Avenida tabernan salgai dira.

✓ **Helduen Heziketa Iraunkorreko (EPA)** zentruak hainbat ikastaro antolatu ditu abenduaren 9tik 18ra. Argibide gehiago nahi izanez gero, 76 44 52 telefono zenbakira jo dezakezue.

✓ **Afari herrikoia**"izango da Antzuolan datozen abenduaren 11 eta 12an, Jubilatuetan. Sarrerak salgai daude *Urrats* tabernan 2.000 pta.tan.

✓ **Pol-Pol M.T.k** dei egiten die aurtengo mendiko edo skiko federatu karneta atera nahi dutenei bulegotik pasatzeko. Eskura ordaindu beharko da.

✓ **Beethoven** filmea eskeiniko da igandean, hilak 6, matinalean, 11 t´erdietan. Zine-klubean, berriz, *La Frontera* emango da ostegunean, hilak 10, arratsaldeko 7 t´erdietan.

✓ **Gazinemako** aurtengo programazioa jadanik martxan jarri da Antzuolan. Ostiralean, hilak 4, *Thelma y Louise* filmea eskeiniko da gaueko 10etan eta astelehenean, hilak 7, *Sólo en casa*.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro,9-Teléfono,761051
R.S.I. 209374 -SS
·BERGARA·

Kabia
Altzariak
Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

IBARGUREN PENTSUAK
*Biona* pentsuen biltegia.
*Bioter* produktoak eta haziak.
San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

# Amaia Arantzabal: "Medikuek otsailera arte itxoin egin beharko dudala esan didate"

**Jakingo duzuenez Amaiak Cho-Oyu igo ondoren kongelazio batzu izan zituen behatz potoloetan eta duela gutxi operatu dute. Gu Azpeitiako bere etxera hurbildu ginen nola aurkitzen zen jakiteko. Amaiak irrifarre batekin hartu gintuen eta elkarrizketan zehar irakurriko duzuen moduan Amaiak badu berriz mendira joateko gogorik.**



*Amaia Arantzabal aurten Everesteko gailurra lortu duen Josu Bereziartuarekin.*

**- Zer moduz aurkitzen zara ebaketaren ondoren?**

- Momentu hauetan nahiko aspertuta nago, betiko gauzak egin nahi ditut, baina oraindik luzaroan egon beharko dut. Medikuek esan zidatenez otsailerarte itxoin egin beharko dut eta utzi nire gorputzak jasandako gaitzak errekuperatu ditzan. Ebaketan behatz potoloetatik zati bat kendu zidaten, baina medikuen ustez bizitza normala egin eta mendian ibiltzeko gai izango naiz.

**-Zure ustez mendiak merezi al du halako esfortzurik?**

- Mendiak ez du merezi ezta gauzarik txikiena galtzea ere, baina askotan istripuak gertatzea ez dago zure gain, neurria ez dago garbi, nik ez nekien kongelatu nintzela botak kendu artean. Halako mendi bat igotzeak esfortzu handia suposatzen du, beharbada zure gorputzarekin borroka bat da, nik orain sentitutako hotza beste batzutan sentituta nuen eta eramandako materiala ere Everestean erabilitako berdina zen.

**- Etorkizunerako zeintzu dira zure asmoak?**

- Oraindik badaukat mendian jarraitzeko gogoa, baina ez bakarrik hemen, Himalayara ere espero dut joatea, baina hori gorputzak berak eskatuko dit, zeren argi dago gu mendira ez garela sufritzera joaten.

## Lehen emakume euskalduna

**- Himalayak badu gauza berezirik?**

- Bai, mendizale batentzat paraje haiek zoragarriak dira.

**- Zu 8.000tan egon zaren lehen emakume euskalduna izan zara, horrek zer suposatzen**

Artekale, 15
behea.
BERGARA
☎ 76 58 86
COAR
• SUKALDEA
• ORMA-ARMAIRUAK
• NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
• ATEAK-LEHIOAK

P. MANSO
Optika
OPTIKOA, OPTOMETRISTA
Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

du?
- Hori datu estadistiko bat da, bakarren batek izan behar du lehena. Tontorrera igotzean izugarrizko poza hartu nuen. Iaz ezin izan nuen Everesteko tontorra zapaldu. Cho-Oyu mendi errazagoa da, oxigeno barik igo genuen eta gainera eguraldi ona egin zuen.

**- Zuen espedizioari buruz ez zen informazio handirik egon...**
- Bueno, guk espedizioa antolatzeko orduan opor bezala egitea pentsatu genuen horregatik jende gutxik zekien Josu eta nire asmoez. Baina guztia ondo prestatu genuen, sherpak kontratatuta genituen eta mendia igotzeko pausu guztiak ondo aztertuta geneuzkan.

**- Izan zenuten anekdotarik?**
- Bai, Cho-Oyu igotzeko gauzak azkar egin nahi genituen Josuk gero Everest igo nahi zuelako eta laino eta eguraldi txarrarekin hasi ginen porteoak egiten, heldu ginen gure lekura eta laino azpian jende pila bat ikusi genuen eta beraiek gu ikustean dehiadarka eta gure atzetik hasi ziren etortzen, orduan izutu egin ginen kontrabandistak zirelakoan edo, eta laisterka laisterka kanpo basera jeitsi ginen. Hurrengo egunean kanpo basean geundenean han ikusi genuen jende talde bat oso egoera txarrean, umeak izoztuta, zaharrak..., itxura denez beraiek galduta zebiltzan eta gu ikustean laguntza nahiko zuten.., imajinatu momentu haietan zelako gaizki sentitu ginen.



*Amaia Arantzabalek bi operazio jasan ditu.*

**"Mendiak ez du merezi ezta gauzarik txikiena galtzea ere, baina askotan istripuak gertatzea ez dago zure gain "**

**"Nire etxean beti apoiatu eta lagundu didate, baina normala den moduan urrin joaten naizenean beti edukiko dute barruko kezka"**

**- Zure familiak nola ikusten du zure zaletasuna?**
- Nire etxean beti apoiatu eta lagundu didate, baina normala den moduan urrin joaten naizenean beti edukiko dute barruko kezka, gainera aurten ez dute batere notiziarik eduki espedizioari buruz.

## Etorkizunerako asmoak

**- Nola ikusten duzu Bergara mendi kontuan?**
- Aurtengoa pena bat izan da, baina Pol-poleko espedizioarekin lehenengo pausua emana dago, nahiz eta tontorra ez lortu hor dago eurek pilatutako esperientzia eta ziur nago mendian ibiltzen den jende askok Himalaya ezagutzeko gogoa izango duela eta herrian han egondako jendea edukitzea beti izaten da komenigarria galderak eta dudak argitzeko.

**- Aurrera begira zer?**
- Ez dago ezer prestatuta baina planak badaude, nik ez dakidana da plan horietan sartuko naizen, gogoa badaukat baina hainbeste gauza daude: lana, permisoak, dirua, nire osasun arazoak... Momentuz, hori, atsedena hartu behar gorputza bere onera itzuli arte.

CorPa
Bazarra
JOSE CORRIUS
Jostailu sorta bikaina!!
Barrenkale, 13 BERGARA
☎ 76 19 80

KAILASH
ZENTRO ESOTERIKOA
Parasikologi Zientzien Instituto Hispano Amerikarrean diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

# MERKATUAK HAUTSIZ

Winterthur
seguros

Grupo AM
Seguros

AGENTEAK:

Ines Tejedor ☎ 76 24 43

Arrate Areitio ☎ 76 43 96

**ORAIN BERGARAN,**
**BI ASEGURU KONPAINIA**
**ZURE**
**ZERBITZURA**

***BIZITZA, ISTRIPUAK,***
***JUBILAZIOA, PENTSIOAK,***
***AUTOAK***

***ETXEA, KOMERTZIOAK, PYMESak,***
***ERANTZIUNKIZUN***
***ZIBILAK***

# ADI HEMEN

**Ibargarai kaleko dendarien elkarteak KANARIETARA BI PERTSONARENTZAKO BIDAI BAT oparitzen du, jarraian aipatzen ditugun dendatan 1.993ko urtarrilaren 5a baino lehen erosketak egiten dituztenen artean:**

ZUBIZARRETA OPARIGAIAK
YAZKKI-GAZTE
ALGA USAINDEGIA
BOLINTXO KIROLAK
TELKAR ELKTRAGINTZA
FERNANDEZ OHIALAK

MAKAILO ETXEA
BILINTX LIBURUDENDA
LARRAÑAGA OPTIKA
URCELAY HARATEGIA
NINIKA LORADENDA

# 1.992

# KIROL



Udal Kirol Zerbitzua Bergara

BERRIGARA





# SARIAK

**UDAL KIROL ZERBITZUAK eta BERRIGARAK, iazko moduan aurten ere, Bergaran gehien nabarmendu diren taldeak saritu nahi dituzte «II. BERGARA KIROL SARIAK» aukeraketaren bitartez.**
**Horretarako, hiru astetan zehar Bergarako kirol taldeek proposatutako kirolariak aurkeztuko dizkizuegu Berrigaran.**
**Kirolariak aurkeztu eta beste bi astetan, txartelak banatuko ditugu, zuek irakurleok 92an Bergaran kirol munduan nabarmendu direnak aukera ditzazuen.**
**Jasotako botuen artean, bi sari eder zozketatuko dira.**
**Beraz, badakizue, zenbat eta botu gehiago bidali, aukera haundiagoa izango duzue. Animo!!**




AMAITU DUGU DAGOENEKO, KIROL SARIKETARAKO HERRIKO KIROLARIEN AURKEZPENA. ASTE HONETAN ETA HURRENGOAN ONENAK AUKERATU DITZAZUN TXARTELAK BANATUKO DITUGU. BERAZ, ORAIN ZEUK DUZU HITZA. BIDAL ITZAZU NAHI BESTE TXARTEL BERRIGARARA HILAREN 15a BAINO LEHEN.

## B.K.E.ko PELOTA SAILA

- **ARDURADUNAK:** Reyes Azkoitia eta Luis Mari Gutierrez.
- **SORRERA:** Orain dela 20 urte inguru.
- **FEDERATU KOPURUA:** 20.
- **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Gabonetako Zabalotegiko Gazteen Pelota Txapelketa, herri mailan.
- **EMAITZARIK AZPIMARRAGARRIENAK:** Deba Arroko Txapelketa infantil mailan.

### KIROLARIRIK ONENA

**Joseba Oregi**



23 urte ditu eta 11 urte zituenean hasi zen Bergara K. E.n pelotan jokatzen. Gaur egun Afizionatu mailetan ari da. Infantil mailan Gipuzkoako eta Deba Arroko txapelduna izan genuen eta iaz 3. geratu zen Afizionatuetako Gipuzkoako Txapelketan.

### ETORKIZUNIK ONENEKOA

**Iker Muruamendiaraz**

14 urte, 10 urterekin pelotan hasia.

Iaz Deba Arroko Txapelduna izan zen. Horrez gain, Gipuzkoako txapeldunorde eta Zaramagako Txapelketan ere bigarren sailkatu zen.

Gaur egun kadete mailan jokatzen ari da.



## OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK • OI

### 1 HELBURUA:

Helburua, Bergarako kirol talde eta kirolari guztien urteroko lana aitortzea da. Zuek, irakurleok, daukazue azken hitza: zuen botuek erabakiko dute kirol taldeek proposatutakoen artean, zeintzuk izan diren 1.992an Bergarako kirolaririk onenak, nortzuk nabarmendu diren gehien.

### 2 SAILAK:

a. Kirolaririk onena
b. Etorkizunik onenekoa.
d. Talderik onena.
e. Goi mailako kirolaririk onena.
f. Batzordearen saria.

Lehenengo laurak irakurleen botuek aukeratuko dituzte. Batzordeak, berriz, Bergaran kirol munduan nabarmendu denari (direktibo, entrenadore...) sari berezi bat emango dio.

### 3 BATZORDEA:

Honako hauek osatuko dute: Andoni Larrañaga (Kirol Batzordeko Zinegotzia), ordezkari bat klub bakoitzeko, Begoña Payas (Eskola Kiroleko teknikaria) eta Iñaki

## POL POLEKO ESKALADA SAILA

• **PRESIDENTEA:** Andoni Larrañaga.
• **SORRERA:** 1.942.
• **FEDERATU KOPURUA:** 387.
• **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** San Martin jaietan jokatzen den Euskadiko Eskalada Txapelketa.

### KIROLARIRIK ONENA
**Beatriz Jimenez**



29 urte ditu eta Pol Poleko eskalada sailean 1.989a ezkeroztik lanean dihardu.

Kirol Eskaladako Euskadiko Txapelduna da eta Espainiako Kirol Eskalada Txapelketan, berriz, 3. postua lortu du aurten. Estatuko eskalatzailerik onenetarikoa.

### ETORKIZUNIK ONENEKOA
**Iñigo Mujika**

18 urte, orain dela 2 urtetik Pol-Poleko eskalada sailean.

Etorkizun haundiko eskalatzailea, iaz lehenengo postua lortu zuen Bergarako Gazteentzako Eskalalada Openean eta aurten, ostera, Oñatiko Openean 3. postua eskuratu zuen.



## BERGARAKO KARATE ELKARTEA

• **PRESIDENTEA:** Jose Luis Martinez.
• **SORRERA:** 1.978tik lanean baina elkartea sortu 1.987an sortu zen.
• **FEDERATU KOPURUA:** 53.
• **URTEAN ANTOLATUTAKO EKITALDIRIK AIPAGARRIENAK:** Aurten ezin izan dute karate iharduerarik antolatu ezta txapelketatetan parte hartu ere.

### KIROLARIRIK ONENA
**Antton Sasiain**



23 urte ditu eta 14 urte zituenean hasi zen karatea praktikatzen.

Urteetan Bergarako karate taldeko ordezkaririk onenetarikoa izan dugu eta aurten I Dan Gerriko Beltza eskuratu du.

### ETORKIZUNIK ONENEKOA
**Manu Curado**

17 urte ditu eta 7 urte zituenetik elkartean.

Gaur egunean gerriko marroiaren jabe da eta beltza eskuratzeko gogor entrenatzen dihardu.

Aurten parte hartu duen txapelketetan emaitza onak lortu ditu.



## AK • OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK

**Ugarteburu (Udal Kirol Zerbitzuko teknikaria).**

## 4 BOTOAK:

**Berrigarak 3 astetan jarraian kirol taldeek proposatutako kirolariak aurkeztuko ditu eta azkenengo astean eta beste batean, botoak emateko txartelak argitaratuko ditu. Nahi beste boto bidali ahal izango dituzue abenduaren 15a baino lehen.**
**Boto emaleen artean bi pertsonarentzako asteburu baterako bidaia eta Udal Kirol Zerbitzuko bi karnet zozketatuko dira.**

## 5 SARIAK:

**• 25.000 pzta. kirol materialean kirolari onenari.**
**• 25.000 pzta. kirol materialean etorkizunik oneneko kirolariari.**
**• 50.000 pzta. kirol materialean kirol talde onenari.**
**• Sari berezia goi mailako kirolari onenari.**
**• Batzordeak emandako saria.**
**a, b, eta d sailetan finalista izan direnen artean Parisera bi pertsonarentzako astebukaera baterako bidaia zozketatuko da.**

SARIAK Kirol 1.992

Neurriko bizikletak salmentak eta konponketak

BIZIKLETETAN PROFESIONALAK!!

Kirolak i2

• Zenbait modelotan oferta bereziak
• Finantziaketa era egokiak

Ibargarai, 45 BERGARA
☎ 76 41 63

• Moda-modako mendiko arropak
• Forro polarrak
• Oinetakoak



Ez ezazu Gabonak arte itxoin, etorri zaitez lehenbailehen!!

• Kaminoko eta mendiko bizikletak
• Bizikleta estatikoak

# PERTXA ELKARTEA

## Hamasei urte beteko ditu abenduaren 8an


*Ekitaldi askotan parte hartu izan du Pertxak.*

Pertxa elkartera joan eta bertan 16 urtez lehendakari izan den Jesus Maria Eguren Uriarterekin egon ginen.

Pertxa da kaleko elkartetik handiena.

### Sorrera

1964an sortutako Pertxa «hermandadea» zegoen aurretik, eta hauek pentsatu zuten elkartea egitea. Elkarteak duen izen berezi hau futbol talde batetik dator. Talde honek Pertxa zuen izena, pankartak egiteko errezena bait zen. Etxetik pertxa bat hartu eta gainetik markatu baino ez zegoen. «Anai bi» izena jarri nahi zioten elkarteari, baina orduko gobernadoreak ez zien utzi.

### Bazkideak

120 bazkide daude Pertxan, eta beste 4-5 noiz sartuko zai daude. 120 bazkide hauetatik bat emakumea da. Beraien bataz besteko adina 45 urte ingurukoa da.

Diru kontutan sartzen bagara, joan zen urtean 4 milioi pzta. inguru batu zuten kuotak kontatu gabe, Pertxak duen mugimenduaren lekuko. Joan zen urtean 6.979 pertsonek erabili omen zuten jangela. Eta orain dela 2 urte, 100.000 zenbakia bete zen, jangelan hau ere. Pertxan %0,95eko faltak daude.

Momentuan ez dute proiekturik. Elkartea aislatzen 4 milioi inguru gastatuko dute.

Pertxatik hainbat pertsonai pasatu omen da. Besteak beste, Monzon, pelotariak, bertsolariak, Errealeko jokalariak... Elkartean bertan "Kikio" ere bazkide da, herriko pertsonai ezaguna.

Sukalde kontutan Jose Maria Perez dugu abila. Danetik gertatzen omen du.

**FITXA TEKNIKOA**

**SORTU:** 1.976.eko abenduaren 8an.
**BAZKIDEAK:** 120.
**HELBIDEA:** Mahasterreka 14.
**PRESIDENTEA:** Jesus Mari Eguren.
**ELKARTEAREN EGUNA:** Abenduak 8.
**URTEKO KUOTA: 8.500** pzta.

*Ainhoa Lete*

Izarra elektragintza
Carmelo Aranguren Unamuno
Tailerra: Zubieta 10 behea
BERGARA ☎ 76 54 10
Etxea: ☎ 76 19 99 / 76 10 60

AKORT
• Fotokopiak koloretan
• Publizitatedun kamisetak
• Oihal inprimaketak
San Lorentzo, 7 behea. Tel. 76 50 39

MABER GIMNASIA-ETXEA
• Kulturismoa
• Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa
•Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak
• Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak
Koldo Eleizalde, 16
BERGARA
☎ 76 56 17


Martin BERROYA, Euskadiko kulturismo txapelduna

**Foto Sistema**

**ARGAZKIAK ORDUBETEAN**

✔ *Diapositiba errebelatzeak.*
✔ *Karneterako argazkiak momentuan.*
✔ *Argazki materialen salmenta eta konponketak.*
✔ *Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.*

**Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50**



ETXE-AUNDI

***Negozio bazkariak***
***Ezkontzak***
***Banketeak***

**Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56**
**OÑATI**

**TOKI-EDER**
**Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

**Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84**

# Arrazistak al gara euskaldunok?



**Manoli Barrenetxea**
**33 urte, langilea**

Nere ustez ez. Lehengo garai batean kanpoko jendearekin beharbada zedozer bai baina gaur egun ez.



**Alex Arroyo**
**22 urte, ikaslea**

Ni ez naiz sentitzen baina Euskal Herri guztian dagoela esango nuke. Kanpoko jendea gaizki ikusia dago.



**Esteban Romero**
**39 urte, langilea**

Ez, ni kanpokoa naiz eta ez dut uste arrazismorik dagoenik. Nik behintzat hemen ez dut somatu.



**Olatz Agirreolea**
**28 urte, pedagoga**

Beti egoten dira arrazismo kasu batzuk baina orokorrean ezetz uste dut.




**ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.**

Artekale29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



**POL - POL TABERNA**
**Tfnoa: 76 48 51**

**DEPORTIVO TABERNA**
**Tfnoa: 76 01 51**



## *Gure ingurugiroaz*

Badakigu gure ingurugiroaren egoera latza dela. Kezkatzen gaituen gauza da. Baina, hala ere, gutxi egiten dugu egoera hau aldatzeko. Badaude, ordea, gauza errez batzuk denok egin ditzakegunak.

Adibidez, dagoeneko, denok ikusi ditugu, gure herrian, Deba Garaiko Mankomunitateak jarritako paper eta pilak biltzeko kontenedoreak, hauek berziklatzeko asmoz.

Neurri bikaina deritzot, uste bait dut garaia dela honelako ekintzei bultzakada haundi bat emateko. Aurrezketa ekonomiko nabarmenaz gain kutsadura arazoa (papelerak, pilek sortzen duten ur-kutsadura... etab.) murriztu egiten duelako. "Insignis"en arazoa ere denon buruan dago.

Honelako neurri gehiago beharko genituzke.

Horregatik gure ingurugiroatik zerbait egiteko gonbidatzen zaituztet.

**Eduardo Jauregi**



## *Aukera bat*

Jakina denez, datorren urtean europear merkatu bakarrean sartuko gara. Produktuak askatasun osoz ibili ahal izango dira, mugarik gabe, EEEko partaide diren herrietan zehar. Honen ondorioz, baserriak, logikoa denez, jasango du eraginik. herri produzitzaile nagusiek ezarriko dituzte merkatuko salneurriak, produzitzaile txikiak babesik gabe utzirik.

Euskal Herriko baserrietan lortzen den produkzioa hutsa da beste herri batzuetan lortzen denaren aldean. Guk, beraz, ezin diegu prezioetan konpetentziarik egin, produkzio kopuruak direla eta. Kalitatearen aukera geratzen zaigu. Kalitate goreneko produktuak lortzeko moduan gaude eta gainera hemengo gustu eta beharrei egokitutakoak; barazkiak, lekaziak, fruta, gazta, sagardoa, okela, etab. bezalako produktuez dihardut, merkatuan aurkezpen egokia eginez, eta hedapen eta informaziorako pisuzko kanpainekin, kanpoko produktuekin konpetitu eta merkatuan salneurri altuagoak ere lor lezaketelarik. Ezin dugu ahaztu nolako lilura sortzen duten gure artean jatekoek eta sukaldaritzak orokorrean.

Produktuen kalitatearen aukera erabili beharko litzateke merkatuetan konpetitzeko, 93a baserria desagerpen osoaren hasiera izan dadin ez badugu nahi.

**Jose Maria De Borja**

TELKAR
PHILLIPS SONY
ZERBITZU TEKNIKOA
IBARGARAI, 2 ☎ 76 27 11
BERGARA

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
Edertasuna osasuna
bezalakoxea da.
Bakoitzarena banan-banan
zaindu beharra dago.
Utzi ezazu benetako
espezialisten eskuetan.

Bidekurutzeta 7, ☎ 76 31 71 BERGARA

Pub USOA

Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

Beheko Taberna
*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LAKET
Gizon Emakume
Barrenkale 35 BERGARA

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

AGIRREBEÑA
*Oinetakoak*
*Erropa denda*
*Lenzeria*
Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

IRUBIDE
Taberna
Bazkariak, gosariak, afariak, etab.
Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07



### ❑ "Farruco"ri omenaldia

Joan den ostiralean Jubilatuek omenaldi bat eskeini zioten **Basilio Flores** *"Farruco"*ri, elkarteko Zuzendaritza Batzordean hainbat urtetan eginiko lana eta beti izan duen umore ona eskertzeko. Ostiralean, izugarrizko jende pila bildu zen jubilatuetan; lehenbizi meza izan zen Monja Zaharretan eta ondoren lunch bat eskeini zitzaien bildutakoei. Basilio Floresek (94 urte) hainbat opari jaso zituen eta eskertu egin zuen omenaldia. Argazkian, Reyes Korkostegiren zoriontzea jasotzen.



### ❑ Marino Bergaran

Astelehenean **Marino Lejarreta** Bergaran izan genuen bisitari. Txirrindulari ohiak bizimodu lasaiago bati ekin dio eta *Maxim´s* kafetegian izan zen lagunekin lasai asko berriketan. Ospeak, hala ere, ez du barkatzen eta autografo mordoa sinatu behar izan zien atean bildutako haurrei. Datorren astean ere **Arritxu Iribar** Euskadi Irratiko kirol kazetariak eta **Ramon Etxezarretak** berari buruz idatzi duten liburua salgai izango da liburutegietan. Baietz *best-seller*a bihurtu!!

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...
Bidekurutzeta ☎ 76 13 23
*Jostailuetan % 20ko deskontuak*



## ❑ Iparramerikatik Bergarara

Aste honetan Iparrameriketara itzuliko den **Rosario Iñarra**ren omenezko bazkaria egin zuen emakume talde honek igandean Lasa Jatetxean. Rosario Iñarra (lehena ezkerraldean) 21 urtekin joan omen zen Iparrameriketara eta orain, 52 urte dituela, bere orduko lagunekin elkartzeko aukera izan du. Berriro egunen batean elkartuko diren itxaropenaz, bere lagunek agurtu egin zuten Rosario. Espero dugu orduan ere *Berrigara*ko argazkilariren bat bertan izatea...



## ❑ Asto-jana

Pasa den azaroaren 21ean 50 bergarar inguruk, jadanik 25 urteko tradizioari eutsiz, asto-jana izan zuten Bergarako jatetxe ezagun batean. Menua, eta ez harritu, betikoa izan zen: entsalada eta astoa. Astoa bai; itxura batean astoaren haragia oso goxoa omen da eta bestela galdetu iezaizue bazkarian parte hartu zutenei. Gainera, urtez urte bazkaltiar kopurua haunditu egiten da eta astoak «zeresanik» izango du honetan. Argazkian, jandako astoa: ekaina aldean jaio eta orain gutxi heldu zaio bere San Martina.

## Zertan dihardute ba?

### ELSA MANSO



Andoaingo Zine eta Bideo eskolan ikasketak burutu dituen 25 urteko bergarar hau Juanma Bajo Ulloak errodatzen ari den *La madre muerta* filmean parte hartzen ari da errealizazio lanetan.

### TXISTU ETA MANOLO




Igandean Bilbon jokatu zen *Egin* egunkariko III. Mus Txapelketan, Bergara ordezkatzen zuen bikote hau, 2.000 bikotetik, 32 onenen artean sailkatu zen baina ez zuen finalera heltzeko aukerarik izan.

GOIERRI
Autogidarien eskola
Fraiskozuri Enparantza 5 Tfnoa: 76 41 50 BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

# Umore giroan

### Metedor de tremendos

Eibartar bat juan zan Burgosera soldautza eitxera. Lenengo egunian. asi da kabo kozkor bat izenak artzen, eta nunguak eta zer ofizio dauken galdetzen.

Gure eibartarra armagintzan jarduntzen zan. Pistoliaren armazoia funditzerakuan, zulotxo batzuk geratzen jakozen, eta orduan "remache" batzukin tapátzen ziran zulotxo aiek. Ori eitxen zebanari "garau sartzaillia" deitzen jakon.

Ori zan, ain zuzen, gure mutillaren ofizua. Orregaitxik, galdetu zetsenian zer biarmodu zeukan, berak garaua itzuli edo traduzidu zeban "tremendo" lez, ta au izan zan bere erantzuna:

- Mi ofisio? Metedor de tremendos.

* * *

### Tuneleko zuloa ostu

Eibarko taberna bateko etxekoandria benetan kontubatzaillia zan. Aren jakinnaixa! Kliente guztien berbaldixetan nastatzen zan. Sorgiña zan benetan.

Orduan, Benito Azkarate eta kuadrilliak pentsau zeben beinbetirako pelma ura aldentzia. Eta ara zer pentsau zeben. Ba zetorren andria eta asi da Benito laguneri esaten:

- Ori gero, ori, eiñ, eiñ biar dok. Sekula alakorik!

Eta andriak:

- Zerpasau da Benitxo?

- Badakizu nun daguan Zaldibarko trenbideko tunela?

- Bai. Eta zer pasau da?

- Ara ba: ostu eiñ detsela zuloa.

**Pedro Zelaia**

# Antzinako kontuak

## *San Martin Txiki (eta II)*

Aurreko astean Samartintxikik nekazaritzaren sekretua lantzeko moduaz aritu ginen. Oraingo honetan, Historiaurrean ematen den beste lorkizun bati buruz arituko gara: metalgintza. Hemen ere Samartintxiki dugu protagonista. Hona hemen J.M. Barandiaranek jasotako leiendaren 2. atala:

"Berriz ere maltzurkeriz lortu zuen San Martiniko-k Basajaun-i zerrak egiteko iaiotasuna harrapatzea, Oiartzun aldeko esanetan. Basajaun zerrak egiten ari zen bere lantegian; San Martiniko-k ordea ezin, ez bait zeukan horretarako eredurik. Sekretu hori ezagutu nahirik, bere morroia herrira bidali zuen, San Martinikok zerrak egiten zituela, esatera. Hori entzutean basajaunak galdetu zion: zure nagusiak ikusi al du, bada, gaztain hostoa?

- Ez du ikusi, baino ikusiko du, erantzun zion morroiak, eta honek San Martiniko-ri kontatu zion gertatua. San Martinikok ikusi zuen gaztainaren hosto hortzduna, eta, bere erara, burni azal bat landu zuen.

Gauez joan zen Basajaun San Martiniko-ren burni-olara, honek zerrarik egiten zuen ikustera. Han bat ikusi zuenean, hortzak okertu zizkion alde batera eta bestera, bizpatean, tresna hondatu nahirik. Baina horrela tresna hobeagotu egin zuen: orain hortzoker zen zerra eta ez zen itotzen, lehen berari eta basajauni gertatzen zitzaien bezala. Ordutik zabaldu zen munduan zehar zerraren erabilketa".

(BARANDIARAN, J.M.: Euskal Herriko mitoak, Gipuzkoako Kutxa, 1988, Juan Lekuonaren itzulpena)

**Xabier Larrañaga**

URRATS
Kafetegia
Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

ederTu
ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA

ARTAZI
% 20 eta 40ko deskontuak
Consuelo Ibarra Gantxegi
Katabia, 1 BERGARA
☎ 76 27 17

MINER ardoak
Ardo onak, jakina
Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

Zumelaga

JATETXEA

San Antonio 5
BERGARA
76 20 21

ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



# GALDE DEBALDE

## ANA MARI AGIRRE

**Ramon Maria Loiti** angiozartarrak negu partean zapaldu zuen Akonkaguaren gailurra **6. 970 m.tara** dago eta hori zen, hain zuzen, aurreko GALDE DEBALDEn eskatzen genizuen erantzuna.

**ANA MARI AGIRRE suertatu da aste honetako irabazlea.**
**ZORIONAK !!**
**Eta besteok segi asmatzen, bila dabilenak azkenerako topatu egiten du eta! Animo!!**

HERRAN ETXEA

**Sukaldeko altzariak**
Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB, bideoak, HIFI aparailuak.**
Matxiategi, 3. 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16



ANA MARI AGIRREk jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAk emandako saria.

ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

**Barrenkaleko etxeak hain dotore ipintzen dabiltzan une honetan lehenengo emaitzak ikusteko moduan gaude. Fatxada txukundu dioten etxeetariko bat Argentinako Mendozan bizi den Justo Garate sendagile eta kultura gizon ospetsuaren jaiotetxea da, ateburuko plakak ederto azaltzen duen bezala.**

**Aste honetako galdera hauxe duzue,**

**Bere etxeko ateburuan dioenez zein urte, hilabete eta egunetan jaio zen Justo Garate ?**

izena ____ abizena ____ telefonoa ____

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

**❑ Atletismoa**
Bergara Atletiko Zaleak dei bat luzatzen die Bergarako atleta eta atletismoan interesaturiko guztiei datorren ostegunean arratsaldeko 7etan Kultur Etxean atletismoari buruz egingo den bilerarako. Bilera honen ardatz nagusia Bergarako atletismoa berpizteko dauden arazoak aztertzea izango da. Honez gain bilera honen bultzatzaileek umeek atletismoan jarraitzeko dituzten zailtasunei irtenbidea eman nahi diete.

**❑ Fitxaketa**
Bergarako futbol talde nagusiak fitxaketa berri bat egin du. Atzekaldean dauden arazoak konpontzeko, Ricardo Abad gasteiztarra fitxatu du.

# Josetxo Muniategi: "Izugarrizko denboraldia egiten ari gara"

Josetxo Muniategi urtetan dabil eskubaloi munduan eta badirudi aurtengoa Bergarako eskubaloiaren urtea dela. Pasa den asteburuan Bergararrek Urnietako liderraren kontra sekulako partidua jokatu zuten. Josetxori nola izan zen partidua kontatzeko eskatu diogu eta berak zera esan digu *"joan zen asteko partidua izugarria izan zen, haseratik partiduan kontzentraturik irten ginen eta ondo egindako erasoekin 6-1 jarri ginen aurretik, defentsan oso ondo aritu ginen beraien erasoko eskema zeharo apurtuz. Partidu amaieran 12 goletako diferentzia atera genien, honek sekulako meritua dauka Urnietako taldeak bi urtetan partidu gutxi galdu dutelako".*



*Josetxo Munitaegi bere jokalariak zuzentzen.*

Baina halako emaitzak ez dira egun batetik bestera lortzen eta Josetxok hau argi uzten du *"talde nagusian dauden jokalari guztiak 12 urtetatik ari dira eskubaloian jokatzen eta hori asko igartzen da. Gainera aurten jokalarien aspektu fisikoa asko ari gara lantzen eta jokatutako partiduetan igarri da".* Bergarako eskubaloiak duen etorkizunaz galdetzen diogunean Josetxok argi eta garbi erantzun digu *"etorkizunerako ez dut arazorik ikusten, orain goian dagoen jendea gaztea da eta atzetik jokalari onak datoz".*

# Futbitoaren arrakasta

Futbito txapelketako partiduak aurrera doaz eta jadanik hasi dira talde batzuk sailkapenean aurreratzen. Asteburu hau zubia izan arren antolatzaileek atzeratutako partiduak jokatzeko aprobetxatuko dute. Sailkapenari begiratuz lehen mailan Toki-Eder taldea dago lehen postuan 12 punturekin, Mongatxurra eta Eusebio II puntu batera daude. Bigarren mailan Shaktale 14 punturekin lehen postuan dago, Arrano eta OZ4 bigarren postuan daude. Esan bezala, asteburu-rako atzeratutako partiduak iragarrita daude.





GIARTZU

( M. Isabel Hurtado )

Dermoestetika osoko zentroa

Laser izpien bidezko errekuperazioa
Errekuperagailu elektrikoa
Korrente kapazitatiboak

Estetika Tramentuak
Larruazal garbiketak
Kosmetika espezialiatua

Boni Laskurain 3, Etxabea, Tfnoa: 76 35 71



## *San Martzial eguna, 1.933. urtea*

Gerraurreko San Martzial egun bateko argazkia dakarkizuegu oraingoan. Ez dakigu argazkia goizean lehen orduan atera zuten baina jendea dotore eta txintxo-txintxo ageri zaigu. Edo, beharbada, orduan ez zen gaur beste txurrut egingo... Eurek esan beharko digute. Horren azalpena jaso nahi baduzue, hara zeintzu diren:

**Zutik:** Pilar Murgoitio, Luis Ibarra, Jose Lazpiur, Osinaga, Patxi Azkargorta (Patxi Lugarri), ezezaguna, Txomin Marko, Jeronimo Azkarate, Dolores Jauregi (Iñaxio Ibarzabalen alarguna), Matias Etxeberria eta bere anai Zeledonio Etxeberria.

**Eserita:** Anita Txintxurreta, bere senar Damian Arana, Mendizabal jauna, Felix Agirreolea eta Pakita Agirrezendoia.

**Belauniko:** Jesusa Galarreta Telleria (monja dago Trinidadean), Iñaki Azkargorta (Lugarri, 18 urtetan aurrekua ateratzera Bergarara etorri zena) eta Arenaza Eskoriatzakoa. Ezkerraldean, beren gurasoen alboan, Elisabet Arana.

**Etzinda:** Karmelo Otaola (Bergarako gazteriari euskal dantzak erakusten zizkiona).

**Ezkerraldean,** baztartxoan: Maritxu Igartua, ezezaguna eta Fermin Mujika.

***Estepan Plazaola***
***Argazkia: Karmen Azkargorta***



jolas

GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA
BARRENKALE 27

## ETXEBIZITZA

**Ganbarak** hustu eta garbitzen ditugu. ☎ 76 82 17.

**Antzuolan pisua salgai,** Ibarra 3, 6.Can. ☎ 76 62 49.

**Bergaran** herriaren erdialdean **ileapaindegia** alokatzen da. ☎ 76 16 17.

**Harrizurin** garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

**Pisua salgai** Bidekurutzetan. **(5.000.000).** ☎ 76 09 36.

Artekalen **pisua salgai** ☎ 76 55 63. Gauez.

**Garajea salgai** Santa Marinan. ☎ 76 32 70.

**Garajea** salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu **amueblatua alokatzen** da Bergara erdian. ☎ 12 12 71.

Espaloian **garajea** salgai ☎ 76 23 27.

**Pisua** salgai Artzamendin mueblekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

**Pisua salgai** Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauez).

**Garaje bikoitza** alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

**Taberna** alokatuko nuke. ☎ 76 53 73.

## SALDU-EROSI

**Koker** arrazako txakur bat salgai (marroia). ☎ 76 56 06.

**Citroen AX Image** SS-AG matrikuladuna salgai. ☎ 76 35 50 (gauez) edota 79 82 10 (egunez).

**Collie** txakurkumea salgai. Bi hilabete. ☎ 76 64 83 (Xabier).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako **klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

**Sega Megadrive** bi joku salgai. 8.000 pta. ☎ 76 25 12 (Andres).

**Eskiko** Koflach-Valuga **botak** erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

**Ileapaindegi** eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

**Bateria** klaseak ematen dira. ☎ 76 54 74 (Aitor).

**OPEL CORSA** SS-S gorria salgai. Prezio onean. ☎ 76 55 80.

**Petroliozko estufa** salgai. ☎ 76 50 05.

**Peavy 100 watts** bi **anpli** salgai. Biak 100.000 pezetatan (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

**Kitarra akustikoa** salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

**Lau MSX** joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

**Peugeot 205 XL** bat **salgai.** 6 urte SS-W. ☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gauez).

**Pasiatzeko bizikleta** ia berria salgai. ☎ 76 45 64.

**Fisika** eta **matematikako** klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke. ☎ 76 31 76.

## LANA

**Neska** behar da **etxeko lanak** egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska batek **etxeko lanak** egin eta **umeak zainduko** lituzke. ☎ 76 45 53.

Emakumezko batek **haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Etxeko lanak** egin eta **umeak zainduko** lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

**Edozein motatako lanak** makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek **etxeko lanak** egin edota **umeak zainduko** lituzke. ☎ 76 60 65 .

## Hildakoak

***Cipriano Martin Bruña***
azaroak 27, 78 urte
***Luis Calleja Zarate***
abenduak 3, 70 urte

## Jaiotakoak

***Julen Eguren Carmona***
azaroak 23
***Urki Ibarguren Mujika***
azaroak 24
***Aintzane Gabilondo Berrotaran***
azaroak 29
***Ainhoa Narbaiza Irizar***
azaroak 29

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**
ANGIOZAR ☎ 76 55 70

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

GRUPO Image Center

KIÑU

ADI GABONETAKO KATALOGOARI!!




NIKON
CANON
MINOLTA
OLINPUS
PENTAX
MINOX
ROLLEI
SONY

• TRIPODEETAN ESKAINTZA BEREZIAK •
• MARKAKETA BEREZIAK •

IKUS ITZAZU ARGAZKIAK TELEBISTAN !!

Barrenkale, 35 BERGARA ☎ 76 58 05

TEMPRA STADIO




ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA